

4.PIEZA

▣ DIRU-SARRERAK

Gure diru-iturri nagusiak udalak azpiratu dizkigun laguntza ekonomikoak eta guk jarriko dugun dirua osatzen dute. Guztira, 10.00 euro izango dira. Gure artean 8.000 euro jarriko ditugu guztira, bakoitzak 2.000, eta, geratzen zaizkigun beste 2.000 euroak udaletxeak emango digu.

Udalak laguntza ekonomiko horiek eman diezazkigun, gure proiektua aurkeztu behar izan dugu, eta hortik abiatuta, baldintza guztiak betetzen dituen eskaera bat eskatu, udalaren laguntza ekonomikoa onartu ahal izateko. Gure proiektua berrikusi eta gero, eta eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren, udalak, lehen esan dugun bezala, emandako laguntza 2.000 eurokoa da.

Udaletxeak ematen digun diru-laguntzak nahiko eskasak direnez, horregatik jartzen dugu kantitate hori, proiektua aurrera eraman ahal izateko. Badakigu hasieran galerak izango ditugula baina gero eta haur gehiago etorriko direnez espero dugu egoerari buelta ematea, irabaziak lortzeko.

Irekitzerakoan, diru gehiago izango dugu, izena emateko kuotari esker eta ekintza zehatzak egiterakoan, beste kuota txiki bati esker.

Pixkanaka-pixkanaka diru gehiago izango dugu eta material berriak erosiko ditugu, hobekuntzak egingo ditugu maila ekonomiko handiago bat izatean.

PREZIOAK
Ordubete, haur bat: 3€.
Ordu bat eta erdi, haur bat: 4,5€.
Ordubete, haur bat anaiarekin edo arrebarekin: 5€
ordu eta erdi, haur bat anai arrebarekin: 6,5€
GURASOENTZAKO FORMAZIO TAILERRAK
Formakuntza saioa: 8€
Formakuntza saioa eta bazkaria: 10€

Formakuntza saioa, bazkaria eta haurrentzako tailerrak: 15€

UDALEKUAK

5 egun: 50€

10 egun: 80€